



Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. maila: 2. saria

ALTXOR MAGIKOA

Unai Ziganda Alonso

Bazen behin piraten guda bat. Pirata onak eta gaiztoak zeuden. Pirata gaiztoak oso gaiztoak ziren, eta horregatik ez zituzten altxorrik. Baina onak zirenek altxor asko zituzten.

Egun batean, pirata gaiztoek altxor magiko bat lapurtu zuten. Beste altxor bat lapurtu ahal izateko, altxor magikoari eguna errepikatzeko eskatu zioten. Baina pirata onek beste altxor magiko bat zuten eta eguna ez errepikatzeko eskatu zioten. Eskatutako bi sorginkeriek elkar talka egin eta “lagun onen” altxorra sortu zuten.

Pirata gaiztoek altxor hura hartu zutenean zintzoak bihurtu ziren. Orain piratek ez dute borrokatzen.